

Arabako Foru Aldundiak plan estrategikoa

DUELA URTEBETE PASATXO hasi zen motorrak berotzen Foru Aldundia, PPren garaian Euskara Zerbitzua zortzi urtez izoztuta egon ondoren. Iazko abenduan ARGIAK egindako elkarrizketan, Lorena Lopez de Lacalle Kultura eta Euskara diputatuak bi kontu azpimarratu zituela dugu gogoan: erabilera eta euskara teknikarien sarea. Orain, Euskararen Plan Estrategikoa aurkeztu dute, euskaldunen hizkuntz eskubideak bermatzea eta euskararen erabilera sustatzea helburu dituena. 1.039.978 euroko aurrekontua du. www.euska-

raba.com webgunea aurkeztu dute eta euskara teknikariak koadrila guztietan izango direla berretsi. Aurki, aldizkari honetan bertan artikulua luzea landuko dugu Foru Aldundiaren Euskara Planaz.

Hedabideak 240.000 eurorik gabe

EZ DA euskarazko hedabideentzako diru-laguntzarik egongo Nafarroan. Uztailaz geroztik hori agintzen aritu da Xabier Azanza Euskarabideko zuzendaria, baina urtea amaitzear dagoela baieztatu du ezetza. Horrez gainera, iazko aurrekontuan gorde zen 9.587 euroko laguntza ere kolokan dago.

BAHEA

Jurgi Kintanak bere blogean (www.unibertsitatea.net/blogak/kintana) esanak: “Zergatik Goiheretxe eta Intxausti bezalako historialari euskaldunak ez dira Euskal Herriko unibertsitateetako historia sailen erdigunean kokatu? Nola eragin dio horrek bertan garatu diren ikerketa proiektuei, historia euskaraz lantzeko aukerei?”.

Martin Rezolak *Tirakan* esanak: “Tantaka, jario kezagarri bat somatzen dut ETB1-ETB2ren arteko aurkezle-esatarien trukean. Transbasea emankor doa euskaratik gaztelaniara, oker ez banago: Asier Aranguren, Urko Aristi, orain Asier Odriozola, eta ahaztuko dudan besteren bat. Gaztelanitik euskarara, ordez, ur-xirripa mehe dugu transbasea: Jorge Cerrato da korronte biziaren aurka urak zentzu horretan pasa dituztenen kandidatuetarako bururatzen zaidan bakarra. Zergatik? Ez al litzateke albiste pozgarria izango Ana Urrutia ETB1ean ikustea eguraldiari buruzko iragarpenak euskaraz egiten, edo Afrika Baeta euskarazko albistegian?”.

Jokin Mayo, Lezoko Institutuko zuzendariak Kontseiluak sortutako Euskalgintzaren mapaz *Berrian* esanak: “Harriduraz, ikusi dut Lezon, azken hogeita hamar urteetan euskalgintzan, euskararen berreskurapen eta normalizazioa lortzeko herriak izan eta dituen eragile indartsu eta eraginkorrenak ez direla agertzen. Ez Lezo Herri Eskola, ez Lezo Institutua, ez Haur Eskola. Horratx! Kultur Elkarteak, Oroitzene AEK eta Lizeo ikastola agertzen dira mapan. Kontseiluan galdetuta, Topagune eta Ikastolen Elkartearekin jarri omen dira harremanetan”.

Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAI AN

Biktimak eta enplegu publikoa

PSE, PP eta EAJk eskatu dute ETaren biktimentzat enplegu publikoko lanpostuak gordetzea. Hori izan da Gasteizko Legebiltzarreko azkeneko notizietako bat, zertxobait oharkabean pasatu dena, nahiz eta beste biktima batzuekiko diskriminazio eta irain karga handia duen. Aipatutako hiru alderdiek beren botoak batu zituzten Giza Eskubideen Batzordean, Espainiako Gobernuari eskatzeko Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutua aldatu dezala, ETaren biolentzia jasan dutenenganako diskriminazio positiboari mesede egiteko. Soilik EA azaldu zen proposamenaren kontra. Aralar eta EB abstenitu egin ziren.

Lopez eta Basagoitiren Gobernutik “ETaren biktimekin” eramaten ari diren erasoaldia muga jasanezina iristen ari da gainerako herritarrentzako, beste terrorismo batzuen biktimentzat diskriminazioa eta iraina ekartzen duelako. Euskal Herrian biktima ugari dago eta biolentzia ezberdinetakoak. Batzuk, ETarenak, botere publikoek pribilegiatuak eta mimatuak dira. Eta besteak, gehienak, ahaztuak eta baztertuak. Badaude frankismoaren eta frankismo-ostearen biktimak, Estatu terrorismoarenak (BVE, Triple A, GAL, torturatuak...), genero indarkeriarenak, patronalaren terrorismoarenak kaleratze eta lan istripuen ondorioz... eta abar. Horiek guztiek, edo beren familiek, Estatuaren diru-kutxa gizentzen dute. Eta beraz, ETaren biktimek enplegu publikora heltzeko izateko pribilegioa badute, zer arrazoi dago pribilegio hori gainerako biktimei ukatzeko?

Espainiako Gobernuak Gasteizko Legebiltzarreko eskaera onartzen badu, esplikatuko beharko du zein diren bere arrazoiak beste biktimak baztertu eta ahazteko, eta zergatik erabiltzen dituen baztertutako biktimek ere ordaintzen dituzten errekurso publikoak ETarenak soilik zerbitzatzeko. Beldur gara, beti bezala, azkeneko hauek ez ote diren pribilegiatuko eta beste biktimak, beti bezala, ez ote diren baztertuak izango.

Juan Mari Arregi